

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Salburua 7. sektoreko hirugarren sektorerako T lursaila berdegune gisa birkalifikatzeko eta garai bateko Ibaialde 11. sektoreko hirugarren sektorerako M7 lursaila handitzeko xedez Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketari

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2019ko otsailaren 22an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Salburua 7. sektoreko hirugarren sektorerako T lursaila berdegune gisa birkalifikatzeko eta garai bateko Ibaialde 11. sektoreko hirugarren sektorerako M7 lursaila handitzeko xedez Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketari, udaleko zerbitzu teknikoek 2019ko urtarrilean idatzitako proposamenarekin bat etorriz.

2. Aldakuntzaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea eta horren berri ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz ematea, edozein erakundek edo interesdunek agiriak azertu eta hilabeteko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan. Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onespeneren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten; eta, Arabako kasuan, baita udalerriko administrazio-batzarrei ere (beren esparruei eragingo balie). Orobat, herritarrentzako partaidetza-programan ageri den azalpen-saioa ere egin beharko da.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 1ean

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE